

EBALUAZIO PROBA

Kristal euria

Bihotza pilpiraka zebilkion, eta hanke aurrera egin nahi zuten, baina Xia Tenzin nekez, astiro, astun zihoan mendian gora. Izan ere, Xia Tenzin oso handia baitzen, gizonkote puska: hamasei urte bete bitartean, herrixkako gainerako mutilen antzera **hazi** zen, baina gaixotasun baten eraginez, banbua bezala hazfen jarraitu zuen, gora eta gora, harik eta 2,40 metrora **iritsi** zen arte.



Eta nekez, astiro eta astun zihoan arren, noizbait ere Bayankalako igarobidera heldu **zen**. Altua zen bera, eta altu zegoen, 4.550 metro inguruan, eta eguzkiak urtu eta haizeak zakar barreiatutako izotz zatiek kristalezko euria sortu zuten, bidaiaria kristalezko euritan bilduz. Zuri baino zuriago, Xia Tenzinek elurrezko halako panpina ibiltaria ematen zuen.

Paisaia ezin zuriago hartan, bidaiaria Dode lagunitsuaz oroitu zen. Galdetzen zuelarik nolakoa zen kolore zuria, esnea bezalakoa zela erantzuten zioten, eta orduan berak: "Hortaz, isuri egiten da"; erantzuten ziotelarik hodeiak bezalakoa zela, orduan berak: "Hortaz, hegan egiten du?", erantzuten ziotelarik elurra bezalakoa zela, orduan berak: "Hortaz, **hotza** da?" Hotzikara batek burutik oinetako behatz txikieneraino zeharkatu zuen, eta iruditu zitzaion ez zegoela **hitz** egokirik edertasun **hura** behar bezala aditzera emateko.

Patxi ZUBIZARRETA
Xia Tenzinen bidaia miresgarria
Ibaizabal

1. ZERGATIK ZEN BEREZIA XIA TENZIN? "x" BATEKIN MARKATU.

- A. Neurritz kanpo hasi zelako.
- B. Bihotz arazoak zituenez, ezin zelako 2,40metro baino gehiago ibili nekatu gabe.
- C. Gaixorik zegoenez, banbua besterik ezin zuelako jan.

2. ADIERAZI ESALDIAK ZUZENAK (Z) ALA OKERRAK (O) DIREN.

- A. Dobe Xia Tenzinen laguna zen.
- B. Bayankalan zeudela, Dobek Xia Tenzini kolore zuria nolakoa zen galdetu zion.
- C. Xia Tenzinik Doberi kolore zuria nolakoa den azaltzen saiatu zen.
- D. Xia Tenzini korrika batean igo zen Bayankalara.

3. ZERGATIK GALDETZEN ZUEN DOBEK NOLAKOA ZEN KOLORE ZURIA? "x" BATEKIN

MARKATU.

- A. Itsua zelako.
- B. Kolore zuria ikusten zueneko lehenengo aldia zelako .
- C. Ez zitzaiolako kolore zuria gustatzen.
- D. Bayankalara joaten zen lehenengo aldia zelako.

4. ZURE USTEZ, GUSTOKO AL ZUEN XIA TENZINESEK BAYANKALAKO PAISAIA?

- A. Bai
- B. EZ

5. ZEIN DA ISTORIAKONTATZEN DUENA? NOLAKOA DA NARRATZAILEA? AZTERTU

AUKERAK ETA ERABAKI.

- A. Protagonistak berak kontatzen du, aditza 1. Pertsonan ageri da eta.
- B. Narratzailea objektiboa da, soilik ikusten eta esaten dena kontatzen du eta.
- C. Narratzailea orojakilea da, pertsonaiaren barne gogoeta eta sentimenduak ere kontatzen ditu.

6. AUKERATU ESALDI BAKOITZEKO HITZ EGOKIENA. GERO, ADIERAZI NABARMENDUTAKOAK HOMONIMOAK EDO PARONIMOAK DIREN "x" BATEN BITARTEZ.

	HOMONIMOAK	PARONIMOAK
Bakarrik zegoela konturatu zenean, negarrez hasi / hazi zen		
Hotz / Hots arraroak entzuten genituen, eta ikaratu egin ginen.		
Itsasoko ura / hura gazia da.		
Zer iritsi / iritzi daukazu eskolako lanei buruz?		
Txakur horrek ehiztari zena / sena omen du.		
Artoa / Astoa arrantzaka ari da.		
Umeak parkean jolasten ari / hari dira.		

7. JARRI ESALDIAK PLURALEAN

- A. Utziko **didazu** zure **arkatza**.?
Utziko _____ zure **arkatzak**?
- B. Umeek txokolatezko **tarta** jan **dute**.
Umeek txokolatezko **tartak** jan _____
- C. Guk hurrei **ipuin bat** kontatu **diegu**.
Guk hurrei **ipuin asko** kontatu _____
- D. Gurasoek zuei **opari bat** ekarri **dizute**.
Gurasoek zuei **opariak** ekarri _____.

8. BERRIDATZI ADITZAK LEHENALDIAN

- A. Dodek ez **du** ezer ikusten, horregatik galdetzen **digu** behin eta berriro nolakoak **diren** gauzak.
Dodek ez _____ ezer ikusten, horregatik galdetzen _____ behin eta berriro nolakoak _____ gauzak.
- B. Nik pazientzia handiz azaltzen **diot** dena beti, baina Dobek, batzuetan, ez **ditu** nire azalpenak ulertzen.
Nik pazientzia handiz azaltzen _____ dena beti, baina Dobek, batzuetan, ez _____ nire azalpenak ulertzen.

9. IDATZI LABURDURAK

- A. Astelehena: _____
- B. Etorbidea: _____
- C. Eta abar: _____
- D. Orrialdea: _____